

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2804

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 29koa, HABEko zuzendariarena, dirulaguntzen deialdia egiten duena euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak, Helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duenak, bere 18. artikuluan ezarria dauka HABEk egin ditzakeela, betiere bere aurrekontu-bitartekoen muga-barruan, laguntza-deialdiak, alfabetatze eta euskalduntze-lanaren osagarri gisako jarduerak sustatzera zuzenduak, hala nola euskararen irakaskuntzaren kalitatea sustatzen duten material didaktikoak edo bestelakoak egitea.

Ildo horretatik, 2022ko Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen duen eta 2021-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duen 2022ko otsailaren 16ko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Aginduak, Sail horren web orrian argitaratutakoak, Hizkuntza Politika alorreko helburu estrategikotzat helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du, besteak beste euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak ekipamendu teknologikoz hornitzeko dirulaguntzak emanez.

2021-2024ko Euskararen Agenda Estrategikoak ere bere lehen konpromisoan jasotzen du plataforma digitalen bidezko irakaskuntza bultzatzeko beharra, euskaltegiekin elkarlanean, helduen kontziliazio-premietara hobeto egokitutako eskaintza sustatzeko.

Bidezkoa da, beraz, gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratzeko euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzak bideratzeko oinarriak onartzea eta deialdia egitea.

Horregatik, aipatu xedapenek eta otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak, HABEren egitura organikoa ezartzen duenak, ematen dizkidaten eskumenez, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DAEL) ezartzen dutenaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dirulaguntzen deialdia egitea euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko, oinarri hauen arabera.

Bigarrena.– Interesdunei jakinaraztea ezen, ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioketela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2024ko maiatzaren 29a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

OINARRIAK

1. oinarria.– Helburua eta zuzkidura ekonomikoa.

1.– Oinarri hauen helburua da dirulaguntzen baldintzak ezartzea euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko.

Deialdi honetarako xede diren gelak digitalizatzeko baliabideak, jarduera hauek garatzeko erabiliko dira:

- Urrutiko irakaskuntza.
- Bilera birtualak.
- Bideo-konferentzia saioak.
- Saioen grabazioa.
- Dokumentuak partekatzea.
- Aurkezpen interaktiboak.
- Ikasleen interakzio digitala.

2.– Zuzkidura ekonomikoa: dirulaguntza hauetan emango diren diru-kopuruak (200.000 euro) HABEren aurrekontuetan horretarako dagoen funtsetik emango dira.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Deialdi honen bitartez banatuko diren laguntzen onuradun izan daitezke euskaltegi pribatuak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak, betiere ondoren zehazten diren baldintzak eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen eta Dirulaguntzen Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, aurrerantzean DLO) 13. artikuluan jasotakoak betetzen badituzte.

2.– Honako hauek dira eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

a) HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatuta egotea, eta datu guztiak egunean edukitzea.

b) DAELren 13. artikularen 2. apartatuan aurreikusitako egoeretan ez egotea.

c) Dirulaguntza-eskaria zuzen osatzea, deialdiaren II. eranskinean jasotako ereduaren arabera eta, eskariarekin batera 4. oinarrian eskatzen diren agiriak zuzen betetzea eta aurkeztea.

d) Dirulaguntza hauen onuradunek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituzte eta, ondorioz, ezin izango dituzte agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.

3. oinarria.– Diruz lagun daitekeena eta ekipamenduen betekizunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagun daitezkeen gastuak 1. oinarrian definitutako ekipamendu teknologikoen erosketa-prezioa izango dira, baldin eta inongo zalantzarik gabe behar-beharrezkoak badira eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko azaroaren 30era bitartean egin badira.

Ekipamenduaren eskuratze-kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko (DAELren 30. artikulua).

2.– Ekipamenduek eskaera egiten duen entitatearen oraingo zein etorkizuneko irakaskuntza jarduerak egiteko egokiak eta beharrezkoak izan behar dute.

3.– Eskatutako ekipamendu teknologikoak, funtsean, arbel digitalak eta proiektoreak izango dira. Gailu horiekin batera, aukerazko zenbait osagai edo modulu eros daitezke, gailu nagusiarekin batera funtzionamendu-unitate bakarra osatzen baldin badute.

Funtzionamendu unitate bat baino gehiago izan daitezke laguntzagai. Unitate bakoitzeko, gehiezez, hiru ordenagailu lotzeko aukera egongo da, betiere, helburu didaktikoetarako.

Aukerako osagaiak ez dira finantzatu, gailu ardatzari edo oinarritzkoari lotzen ez bazaizkio.

4.– Deialdi honetatik beren-beregi baztertzen dira ondoko hauek: eraikinak birmoldatzeko edo hobetzeko obra zibilak; erabilera orokorreko, hau da, erabilera ez-teknologikoko altzari, gailu eta tresnak; bulegoko altzariak, eta kudeaketako ekipo informatikoak.

5.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga diruz lagundu daitekeen kontzeptua da, entitate onuradunak benetan ordaindu badu; inoiz ez da gastu lagungarritzat hartuko ondoren berreskuratu edo konpentsatu daitekeenean.

6.– Laguntza hauei dagokienez, egindako gastutzat hartuko da deialdi honek ezarritako epean egin eta ebazpen honetan ezarritako gastuak 2024ko abenduaren 1a baino lehen ordaindu direnak.

4. oinarria.– Eskarien aurkezpena, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Interesatuta dauden euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentroek, erakunde juridikoak izanik, dirulaguntza-eskariak eta prozedura honetako izapideak bide elektronikoa erabiliz soilik aurkeztuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1215603> helbidean eskuragarri egongo den formularioaren bitartez. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko den dokumentazioa bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko da soilik.

Identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>. Era berean, eskaria elektronikoki ordezkari baten bidez ere izapidetu ahal izango da, horretarako ordezkari Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatu bakoitzak eskari bakarra egin ahal izango du.

2.– Eskariak eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2024ko urriaren 14an amaituko da.

3.– Hauek dira eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Ekipamendu teknologikoaren deskribapena, beharra eta aurreikusitako helburuak azaltzen dituen Memoria.

b) Eskuratu beharreko ekipamendu teknologikoaren aurrekontua edo, hala badagokio, faktura.

c) Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako zehaztutako zenbatekoa gainditzen badu, entitate eskatzaileak ekipamendua eskuratzeko hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez eskaeran. Ez du halakorik egin beharko, dena dela, ekipamenduak hornituko dituen entitate kopuru nahikorik ez badago merkatuan, ekipamenduaren ezaugarri bereziak direla eta. Halakorik gertatuz gero, behar bezala egiaztatu beharko da eskaeran.

d) Zerga-obligazioak eta Gizarte-Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela ziurtatzen duten dokumentuak, baldin eta eskatzaileak ukatu badio HABEri baimena egiaztapen horiek zuzenean lortzeko.

5. oinarria.– Aurkeztutako eskariaren hutsuneak zuzentzea.

Aurkeztutako eskarian dokumenturen bat falta bada, edota okerren bat balego, eskaria luzatu duenari jakinaraziko zaio, eta hamar eguneko epea emango okerrak zuzen ditzan, eta adierazi, horrela egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertu beharko dela, dagokion Ebazpenaren bitartez Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan jasotako baldintzetan.

6. oinarria.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

HABEren Kudeaketa Zerbitzuari dagokio, Ikuskatzailetzaren eta Ekonomia eta Administrazio Unitatearen bitartez, deialdi honetan aurreikusitako kudeaketa-lanak burutzea.

7. oinarria.– Dirulaguntza emateko prozedura eta zenbatekoa.

1.– Oinarri hauetako baldintza subjektibo eta objektiboak betetzen dituzten pertsonak, denboraz eta formaz behar den bezala aurkeztu badituzte eskariak, deialdi honetako dirulaguntzak jasoko dituzte, artikuluko honetako bigarren zatia ahalbideratutako gehieneko zenbatekoan.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa euskaltegi edo autoikaskuntza zentro homologatu bakoitzak eskatutakoaren arabera zehaztuko da lehiaketa bidezko norgehiagoka erabili gabe. Zenbateko horrek ezin du inola ere I. eranskinean adierazitako gehienekoa gainditu, ezta diruz lagundu nahi den ekipamenduaren erosketa kostearen erdia (% 50) ere.

8. oinarria.– Dirulaguntzaren kudeaketa, epeak, ebazpena, publizitatea eta errekurtsioak.

1.– HABEko zuzendariaren Ebazpenaren bitartez zehaztuko da, eskatutako dirulaguntzak ematea edo ukatzea. Bertan adieraziko da erakunde onuradunaren izen soziala, diruz lagundutako zentro eta ekipamendua eta dirulaguntzaren zenbatekoa. Ukatz gero, horretarako arrazoi diren zioak jasoko dira.

2.– Ebazpena 2024ko azaroaren 15a baino lehen emango da.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak eragingo ditu. Argiratze egunean bertan, pertsona eskari-egileek abisua jasoko dute eskarian adierazi duten posta elektronikoan.

4.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen bide administratiboari. Bere aurka erakunde interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jar dezakete, nahi izanez gero, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta bertako 121 eta 122 artikuluei jarraiki.

5.– Dirulaguntza-ematea baldintzatuta dago izapidetzan dagoen edozein diru-itzulketa edo zigor espediente amaitzera. Espediente hau amaitzean, laguntza publikoak jasotzeko ezgaitasuna edo dirua itzultzeko betebeharra ezarri bada, eta hori ez bada borondatezko ordainketa-epean ordaindu, bertan behera geldituko da dirulaguntza, onuradun izateko debekua izateagatik.

6.– Deialdi honetako erakunde eskari-egileren batek, eskabidea aurkeztu edo ebazpena eman ondoren, ekipamendu berdina eskuratzeko bestelako erakunde baten dirulaguntza jasoko balu, HABEko Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, gainfinantziaketa ez gertatzeko konpromisoa hartuta, gainfinantziaketa gertatuz gero deialdi honen bidez emandako finantziazioa dagokion kopuruan murriztu dadin.

9. oinarria.– Beste dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honen kontura ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu horretarako beste edozein entitatek eman ditzakeen laguntzekiko, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketa gertatzen ez bada.

2.– Gainfinantzaketa gertatuko balitz, edota finantzaketa publikoetan aurreikusitako mugak gaindituko balira, murriztu egingo da dirulaguntza, dagokion neurrira doitu arte.

10. oinarria.– Dirulaguntzen ordainketa.

1.– Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gas-tua behar bezala egiaztatu ondoren.

2.– Dirulaguntzaren ordainketa baldintzatuta egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Adminis-trazio Orokorrak edo erakunde autonomoek ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapide-tzen ari bada, prozesu hori amaitzera.

11. oinarria.– Dirulaguntza egiaztatzea.

Entitate onuradunak, 2024ko abenduaren 13a baino lehen, Nire Karpetaren bitartez eta legezko ordezkariaren sinadura elektronikoarekin, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Finantzatutako ekipamendu teknologikoaren erosketaren jatorrizko fakturak eta baita ordain-ketaren ziurtagiria ere. Ebazpenean aipatzen den ekipamenduaren deskribapena jaso beharko da fakturetan.

b) Txosten bat, eskuratutako ekipamendua jaso, martxan jarri eta erabiltzeari buruzkoa. Txosten horrek, gutxienez, atal hauek izango ditu:

– Ekipamenduaren behin betiko kokapenaren deskribapena.

– Eskuratutako ekipamenduaren kalitatearekiko adostasuna, aurreikusitako helburuetarako egokia dela, eta harrera-proben emaitza.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du entitate onuradunak, zeinaren bidez adieraziko duen ekipamendu bera eskuratzeko beste erakunde publiko edo pribatu batek eman-dako laguntza jaso duen ala ez, eta hala balitz, kofinantzaketa hori justifikatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko du.

12. oinarria.– Onuradunaren betebeharrak.

Ebazpen honetan definitutako dirulaguntzen erakunde onuradunek, DLOren 14. eta 46. artikuluetan eta DAELren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak konplitu beharko dituzte, eta zehazki baldintza hauek:

a) Diruz lagundutako jarduera aurrera eramatea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak bete eta jarduera bera aurrera eramatea.

c) Beste edozein Administrazio, erakunde publiko edo pribatuk, helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea HABEri. Era

berean, laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea laguntza eman duen erakundeari.

d) 11. oinarrian aurreikusitako fakturak aurkeztu ondoren, eta gutxienez bost urtez, ekarpen horretatik aurrera, erakunde onuradunek zaindu beharko dituzte egin dituzten eta laguntzaren xede diren gastuak egiaztatzen dituzten faktura eta gainerako dokumentu guztiak, bai eta deialdiari buruzko beste edozein dokumentazio ere. Erakunde onuradunak Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman behar die erakunde bi horiek beren eginkizunen barruan deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eska diezaioketen edozein informazio eta dokumentazio, hala eskatuz gero.

e) Onuradunek publizitate egokia eman beharko diote aitortutako dirulaguntzaren izaera publikoari, DLOren 18.4 artikuluan araututakoari jarraikiz. Horretarako, diruz lagundutako ekipamenduan HABEK emandako babesaren berri adierazi beharko da, Eusko Jaurlaritzaren eta HABEren logo-tipo normalizatua eta «HABEK diruz lagundua» esaldia agerian jarritz.

f) Ebazpen honen ondorioz diruz lagundu diren ondasunak dirulaguntza eman den xede jakinera bideratuko dira, gutxienez bi urtez, erregistro publikoetan inskribatzen ez diren ondasunak diren neurrian.

g) Gainfinantziazioa beste dirulaguntza batzuekin batera gertatzen denean, dirua itzultzeko betebeharra gauzatzeko eskatuko du HABEK, gainditutako zenbateko osoa eskatuz, deialdi honen baitan emandako dirulaguntzen muga arte.

13. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere dirulaguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako dirulaguntza edo laguntzarik eman badu, dirulaguntzak emateko ebazpena alda daiteke. Dirulaguntza jasotzeko baldintzen aldaketatzat joko dira, halaber, behar bezala justifikatzen edo egiaztatzen ez diren gastuak; kasu horretan, beraz, egokiro justifikatu edo egiaztatu ez diren gastuak laguntzeko diru-kopuruak aldatzeko ebazpena emango da.

14. oinarria.– Dirulaguntzarako eskubidea galtzeko edo itzultzeko arrazoiak. Arau-haustekak eta ez-betetzeak.

1.– Edozein kasutan, deialdi honetako onuraduna lotuta dago DAELren 36. eta DLOren 13. artikuluan jasotako oinarritzko xedapenetan zehaztuta dauden lege-hausteen eta ez-betetzeen erregimenarekin.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, DAELren 40. eta 41. artikuluetan eta DLOren 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

DAELan eta DLOren 37. artikuluan azaldutako kausez gain, honako hauek ere dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzeko edo dirulaguntza itzultzeko kausatzat hartuko dira:

- a) Onuradunak dirulaguntzari uko egiten badio.
- b) Deialdi honetako oinarrien eta administrazio-agirien ez-betetze larria (osorik edo zati batez).
- c) Dirulaguntza ebazpen honetan ezarritako epeetan ez erabiltzea, justifikatuta ez badago behintzat.
- d) Ebazpen honetan ezartzen den moduan, HABEren laguntza jaso dela ez adieraztea.

3.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, dirulaguntza ordaindu ondoren justifikatzen bada ekipamendu zientifiko bera erosteko beste erakunde publiko edo pribaturen baten kofinantzaketa jaso dela, dirulaguntza murriztuko da, eta jasotako dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko da.

4.– Dirua itzultzeko, ezarritako prozedura beteko da. Nolanahi ere, hori ez da eragozpena izango egin beharreko beste ekintza guztiak bideratzeko. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

15. oinarria.– Datuen tratamendua.

Dirulaguntza deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak eta egiaztatze-prozeduran sortzen direnak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak araututakoari jarraikiz, «Euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueretan tratatuko dira, ondoren zehazten diren helburuetarako:

– HABEk euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentro homologatuen finantzaziorako bideratzen dituen dirulaguntzen kudeaketa.

– HABEri atxikita dagoen euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroaren kudeaketa.

HABEko zuzendaria izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikokoa den jarduera sustatzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honetan: <https://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa>

2024ko ekainaren 10a, astelehena

I. ERANSKINA

EUSKALTEGI BAKOITZEKO GEHIENENKO DIRULAGUNTZA

Erregistro zenbakia	Euskaltegiaren izena	Ikasle kopurua (2022-2023ko ikasturtea)	DL maximoa (eurotan)
940	AEK – Uda barnetegiak	133	856,08
941	AEK Euskaltegia	1.184	7.621,01
263	Aixkiria	168	1.081,36
285	Altza	139	894,70
154	Amara berriko AEK	226	1.454,69
195	Amurrioko AEK	112	720,91
276	Andoaingo AEK	244	1.570,55
156	Antiguako AEK	197	1.268,02
303	Arana AEK	278	1.789,39
222	Arratiako AEK	181	1.165,04
801	Bai By Bilbo	735	4.730,95
808	Bai By Donostia	245	1.576,98
807	Bai By Gasteiz	352	2.265,71
106	Barakaldoko AEK	240	1.544,80
177	Bidasoako AEK	270	1.737,90
10	Bilbo zaharra	1.204	7.749,74
133	Busturialdeko AEK	205	1.319,52
207	Debagoienako AEK	219	1.409,63
294	Deustuko unibertsitatea	336	2.162,72
124	Durangaldeko AEK	262	1.686,41
100	Eibarraldeko AEK	237	1.525,49
223	Enkarterriko AEK	130	836,77
127	Ermuko kaltxango AEK	134	862,51
206	Gabriel Aresti	2.513	16.175,33
259	Goierriko Goiztiri AEK	221	1.422,50
71	Gotzon Garitaonaindia	156	1.004,12
157	Groseko Irrintzi AEK	463	2.980,18
284	Hego Uribeko AEK	325	2.091,92
241	Hegoalde	307	1.976,06
204	Hernialdeko AEK	418	2.690,53
32	Herri jakintza	151	971,94
252	Hitzez	434	2.793,51
278	Ikagasteiz	1.710	11.006,69

2024ko ekainaren 10a, astelehena

Erregistro zenbakia	Euskaltegiaren izena	Ikasle kopurua (2022-2023ko ikasturtea)	DL maximoa (eurotan)
6	Ilazki	663	4.267,51
114	Indautxu-Iralako AEK	320	2.059,73
78	Jose Antonio Agirre	226	1.454,69
9	Juan Mateo Zabala	799	5.142,89
66	Labayru Fundazioa	501	3.224,77
167	Lasarte-Oriako AEK	174	1.119,98
274	Laudioko AEK	108	695,16
199	Lautadako AEK	68	437,69
141	Lea Artibaiko AEK	309	1.988,93
40	Legazpi 6	482	3.102,47
31	Leizaur	940	6.050,46
116	Lizardi-AEK	457	2.941,56
270	Maizpide	1.252	8.058,70
255	Matxintxu-Larrako AEK	280	1.802,27
146	Meatzaldeko AEK	238	1.531,93
302	Mikelats	130	836,77
806	Mondragon Lingua Bilbao	132	849,64
804	Mondragon Lingua Donostia	152	978,37
803	Mondragon Lingua Gasteiz	145	933,32
231	Oarsoaldeko AEK	634	4.080,84
279	Oiongo euskaltegia	202	1.300,21
119	Santutxuko AEK	287	1.847,32
188	Sestaoko AEK	205	1.319,52
79	Udaberria	796	5.123,58
8	Ulibarri	1.858	11.959,32
104	Uribe Kostako AEK	896	5.767,25
174	Urola-Kostako AEK	481	3.096,04
33	Urrats	743	4.782,44
272	Urumea	671	4.319,00
143	Xaribari AEK	678	4.364,06
99	Zadorra AEK	248	1.596,29
295	Zornotzako barnetegia	1.868	12.023,69
Guztira		31.072	200.000,00

II. ERANSKINA

Euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei gelak digitalizatzeko baliabideak erosteko dirulaguntzak (Kodea: 1215603)

Egoitza Elektronikoa eskuragarri dagoen formularioa

Instrukzio-organo hartzailea:

HABE, HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Konektatutako pertsona: _____

Profil bat baino gehiago badituzu, adierazi, mesedez, zein den eskatzailea:

- Pertsona/entitate gisa ari naiz espedientean
- Ordezkarri gisa ari naiz

Espedientearen pertsona interesduna:

*Identifikazio-dokumentua: _____ *Zenbakia: _____

*Izena: _____ *Lehen abizena: _____

*Bigarren abizena: _____ *Sexua _____

Jakinarazpen-hartzailea:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio: _____

Honako hauek dira Administrazioak jakinarazpenaren jasotzaileari buruz dituen datuak: _____

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: «Nire karpeta» guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

Oharra: 10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzeko ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

* Posta elektronikoa _____

* Mugikorra _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

- Euskara
- Gaztelania

OINARRIZKO DATUAK

Zer lurraldetan dauden erakunde eskatzailearen datu fiskalak:

*Lurraldea: _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Eskatzaileak aitortzen du:

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak «Beste finantzazio-iturri batzuk» eremuan zehaztu beharko dituzu).
- Eskatu du helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak «Beste finantzazio-iturri batzuk» eremuan zehaztu beharko dituzu).

Erantzukizunpeko adierazpenak

- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean.
- Ez da dirulaguntzen itzulketagatik hasitako eta artean izapidetzen ari diren prozeduretan parte, eta horrelakoren batean parte hartu izanez gero, prozedura horiek amaituta egon behar dute.
- Onuradunak giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko ditu eta, ondorioz, ezin izango ditu agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.
- *Aitortzen dut hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

ORGANO INSTRUKZIO-EGILEAK OFIZIOZ KONPROBATZEA

HABEk ofizioz egiaztatuko ditu honako datuak:

- HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatuta egotea eta datu guztiak egunean egotea.
- Zerga zein Gizarte Segurantza arloko betebeharrak egunean dituela euskaltegiak edota autoikaskuntza zentroak (elkarreragintasan sistemen bidez).

Ofiziozko egiaztatze prozedura honen aurka egonez gero, klik egin hurrengo laukian:

- Aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: onuraduna datuok ofizioz egiaztatzearen aurka agertzen bada, Euskaltegien HABEko Erregistroko eta Zerga zein Gizarte Segurantza arloko dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

- Ekipamendu teknologikoaren deskribapena, beharra eta aurreikusitako helburuen Memoria (4. oinarriko 3. ataleko a) letra).
- Eskuratu beharreko ekipamendu teknologikoaren aurrekontua edo, horrela badagokio, fakturak (4. oinarriko 3. ataleko b) letra).
- Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako zehaztutako zenbatekoak gainditzen badu, ekipamendua eskuratzeko hornitzaile ezberdinen eskaintzak (4. oinarriko 3. ataleko c) letra).